

BEGIZORROTZ

GIDA DIDAKTIKOA

1.- DATU TEKNIKOAK

CD-Rom multimedia autoexekutagarria da. Programa bera hasten da CD edo DVD ordenagailuna sartzean.

2.- HELBURU HEZITZAILEA

Haurra irakurketaren ikasketan murgiltzea helburu nagusitzat duen baliabide hezitzailea da Begizorrotz. Helburua osagarri hezitzaile legez erabiltzea da, 3 eta 6 urteko hurrei irakurketaren ikasketarako beharrezkoak diren baliabideez hornitzea: kontzientzia fonologikoa, eta automatismoa eta abiadura lexikoaren ezagutza.

3.- METODOLOGIA. MATERIALA ERABILTZEKO JARRAIBIDEA / METODOLOGÍA. PAUTAS DE EMPLEO DEL MATERIAL.

Aldaera silabikoaren erabileran honako gomendio hauek ematen dira: irakurketarekin lehenengo harremana (Haur Hezkuntza), kontzientzia fonologikoa lantzea (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan irakurketa atzerapena dagoenean), fonema-grafemen asoziazio zuzena (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan irakurketa atzerapena dagoenean), hizkien nabarduren irudikapen ortografiko zuzena (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan irakurketa atzerapena dagoenean). Fonema eta horiek errepresentatzen dituzten hizkiak asoziatzeko arazoak dituzten haurrentzako sistema egokia izango da (kontzientzia fonologikoa), edota hizkien ñabardurez jabetzeko arazoak dituzten eta antzematean nahasten dituztenentzat.

Denborazkotasuna. Fonema bakoitza 30 minutuko saio batean lantzea gomendatzen da, entrenamendu eta lasterketa aldiz osaturik. Hurrengo saioetan entrenamenduari fonema berri bakar bat gehituko zaio, baina lasterketari lehenago landutako fonema guztiak gehituko zaizkio.

Aldaera orokorraren erabileran honako gomendio hauek ematen dira: irakurketarekin lehenengo harremana (Haur Hezkuntza), irakurketaren helburua ulertzea (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan irakurketa atzerapena dagoenean), hitzen segmentazioa fonemetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan irakurketa atzerapena dagoenean), hizkien errepresentazio ortografiko zuzena (Haur hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan). Metodo honek, nahiz eta haurrek abezedarioko hizkiak ez ezagutu, errepresentazio lexikoaren bidez haurrak hizkiak ezagutzeko gai izatea ahalbideratzen du. Haurrentzat oso interesgarria izaten da, hasieratik "dagoeneko irakurtzen dakienaren" sentsazioa baitu. Helburua, euskarazko multzo ezberdinetako 90 hizki ezagutzea da. Substantiboak 10 multzotan sailkatzen dira: animaliak, "etxeko gauzak", "gelako gauzak", jatekoa, gorputz atalak, frutak, tokiak, objektuak, jantziak eta garraioak.

Denborazkotasuna. Multzo bakoitza 30 minutuko saio batean lantzea gomendatzen da, entrenamendu eta lasterketa aldiz osaturik. Hurrengo saioetan entrenamenduari multzo barri bakar bat gehituko zaio, baina lasterketari lehenago landutako multzo guztiak gehituko zaizkio. Modu horretan errepresentazio ortografikoak lantzen joatea eta beraien aktibaziorako sarrera baxuagoa izatea lortuko dugu. Beraz, gero eta ezagunagoak izango dira eta ezagutza arinago izango da.

Erabilera gomendioak:

Guk, metodoen erabilpen bateratua gomendatzen dugu: sintetikoa (silabikoa) eta orokorra, ikasketari hasiera ematerakoan haurren gaitasunaren arabera.

4.- GIDOIA, ZELAN JOLASTU:

Ikasketarako aukera bi eskaintzen dira: bata **metodo silabiko** da: haren helburua euskarazko kontsonante eta bokal guztiak ezagutzeko da. Eta bestea **metodo globala**: haren helburua 10 multzo ezberdinen parte diren 90 hizki ezagutzeko da.

METODO SILABIKOA:

Helburua euskarazko eta/edo gaztelaniazko bokal eta kontsonante guztien ezagutzeko da. Bokal eta kontsonante bakoitzeko mugimenduzko irudi bat garatu da haurraren errepresentazio eta barneratze ortografikoa errazagoa izan dadin.

Jolasak aldi bi ditu: entrenamendua eta lasterketa. Lasterketan parte hartzeko, entrenamendu alditik pasatzea beharrezkoa izango da beti.

Entrenamendua: bokal silabiko batzuei lotuta dagoen kontsonante bat aukeratzen da. Gero, ekintza interaktibo batzuk egiten dira, kontzientzia fonologikoa eta grafema barneratzea ahalbideratzeko; hau da, zehazki zein fonemak zein hizki errepresentatzen duen ikastea.

Oharra: kontsonante berri baten ikasketa gehitzen dugun bakoitzean, egokiena da kontsonante hori lantzea, entrenamendua egin baino lehen.

Lasterketa: entrenamendua gaituta, haurra lasterketan aritzeko prest egongo da. Haurrak berak hautatu beharko du zein ibilgailu erabili nahi duen helmugara heltzeko, zein pertsoniarekin jolastuko den, nor izango den bere lehiakide eta nolakoak izango diren erabiliko dituzten jantziak eta ibilgailuak. Lasterketaren zailtasun maila parte hartzailearen gaitasunei guztiz moldagarria da. Hiru maila agertzen dira:

Erraza: eredia grafemari asoziatuak imajinaren ikusmeneko laguntzaren bitartez ematen da.

Erdikoa: adibidea segundo batzuetan azaltzen da, baina gero desagertu egiten da.

Zaila: ez da ikus-adibiderik ematen, bakarrik fonema aurkezten da.

Era berean, hiru mailatan ariketak bi modu ezberdinez zaildu daitezke: **aldi berean kontsonante bat baino gehiago hautatuz** (abezedario guztia hautatzen bada gorenengo zailtasuna lortuko genuke) edo **denboralizazio funtzioa** martxan jarritz (erantzuna emateko denbora mugatua dagoenez, ezagutza ekintzan automatizazioa handiagoa izatea ahalbideratzen du).

METODO OROKORRA

Helburua edukizko 90 hitz ezagutzeko da, ohikoak eta euskararen hainbat multzotakoak. Substantiboak 10 multzotan sailkatzen dira: animaliak, "etxeko gauzak", "gelako gauzak", janaria, gorputz atalak, frutak, tokiak, objektuak, jantziak eta garraioak.

Hemen ere bi aldi daude: entrenamendua eta lasterketa. Lasterketan parte harteko, beti entrenamendu alditik igarotzea beharrezkoa izango da.

Entrenamendua: multzo bat hautatzen da. Haurrak ikasiko du zein hizki zein kontzeptuari dagokion ariketa interaktibo batzuk eginez.

Hiru maila ditu eta hauetariko bakoitzak 3 hizki ditu, 9 hizki osatu arte.

Lasterketa: entrenamendua gaituta haurra prest dago lasterketan jolasteko. Haurrak berak hautatu beharko du zein ibilgailu erabili nahi duen helmugara heltzeko, zein pertsoniarekin jolastuko den, nor izango den bere lehiakide eta nolakoak izango diren

erabiliko dituzten jantziak eta ibilgailuak. Lasterketaren zailtasun maila parte hartzailearen gaitasunei guztiz moldagarria da. Hiru maila agertzen dira:

Erraza: hiru irudien aurrean idatzizko hitz finko batez azaltzen da.

Erdikoa: honetan idatzizko hitza desagertzen da.

Zaila: irudia idatzizko hiru hitzen aurrean azaltzen da.

Era berean, hiru mailetan ariketak bi modu ezberdinez zaildu daitezke: **aldi berean multzo bat baino gehiago hautatuz** (multzo guztiak hautatuz gorenengo zailtasuna lortuko genuke) edo **denboralizazio funtzioa** martxan jarritz (erantzuna emateko denbora mugatua dagoenez, ezagutza ekintzan automatizazioa handiagoa izatea ahalbideratzen du).

Egilea: Eduardo Herrera Cantera. Psikologoa eta Logopeda, irakur-idazmen atzerapenen errehabilitazioan aditua.